

Plan Estrategikoa
2021 → 2023





aurkibidea

1 - NASERTIC	3
2 - PLAN ESTRATEGIKO BERRIA: TESTUINGURUA	4
3 - NASERTIC: EKOSISTEMA ETA ABIAPUNTUA	5
4 - XEDEAK eta BALIOAK	9
5 - IKUSPEGIA: ARDATZAK eta HELBURUAK	10
6 - IKUSPEGITIK ESTRATEGIARA	12
7 - MAPA ESTRATEGIKOA	13
8 - AGINTE-TAULA	14
9 - PROIEKTUAK ETA URTEKO PLAN OPERATIBOAK	15
10 - NASERTIC GIH-EKIN BAT ETORTZEA	16
11 - NIK HONAKO KONPROMISOAK HARTZEN DITUT...	23
12 - HORRELA EGIN DUGU	25
13 - ESKERRIK ASKO HAUEI GUZTIEI...	29

1- NORTZUK GARA?

NASERTICek (Navarra de Servicios y Tecnologías S.A.) 40 urteko eskarmentuaren bermea du. Enpresa **kualifikazio handiko ekipo tekniko** batek osatzen du, eta hura da haren aktibo nagusia. 135 langilek baino gehiagok lan egiten dute azpiegiturak, teknologiak eta zerbitzu transbertsalak sektore publikotik integratzeko; era horretan, Nafarroako gizartearen garapenean lagunduz.

NASERTICek –Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa (NEKP) taldearen enpresa eta Nafarroako Gobernuaren entitate publiko den aldetik– urteak daramatza zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen teknologiak integratuz eta zuhurtziaz erabiliz, profesionaltasun- eta eraginkortasun-printzipioekin haien balioa errentagarriago eginez. NASERTIC Unibertsitatea, Berrikuntza eta Telekomunikazioak eta Digitalizazioa Departamentura adskribatua dago. NASERTIC ezagutza, espezializazioa, eskarmentua da, Nafarroako Gobernuaren eta gizartearen arteko lotura, irekia, malgua eta arina.

Azken urteotan Nafarroan garatu diren proiektu ugarritan (Banda Zabalaren Plan Zuzentzailea, Superkonputazioa, Datuak Prozesatzeko bigarren Zentroa, Sekuentziario Masiboaren Zentroa, etab.) euskarri-azpiegiturak behar izan dira punta-puntako zerbitzuak eskaintzeko. Egungo testuinguruan, premia horiek areagotu egingo dira; izan ere, **digitalizazioa eta eraldaketa digitala** jada ez dira aukerazkoak, betebeharrak baizik. Nafarroako Gobernuaren Departamentu eta Zuzendaritza Nagusi ia guztientzat lan egiten dugu, eta urtetik urtera zerbitzu gehiago eskaintzen dizkiegu.


NASERTIC proiektu horietan laguntzaile da eta izan da, telekomunikazio-sistemen zein informazio-sistemen eta zerbitzuen kudeaketa integralari esker.



NASERTICen Sekuentziario Masiboaren Zentroa – Cabanillaseko Telekomunikazio Zentrorako bisitaldia.



NASERTICen Sekuentziario eta Superkonputazio Zentroaren inaugurazioa – Banda Zabalaren II. Plan Zuzentzailearen aurkezpena.



2- PLAN ESTRATEGIKO BERRIA: TESTUINGURUA

Honakoa enpresak prestatzen duen hirugarren Plan Estrategikoa da (aurrekoak 2012-2016 / 2017-2020), eta bizi dugun egoera epidemiologikoak markatutako testuinguruan gainera. NASERTICen, COVIDak gure enpresaren balioak, ezagutza eta egokitzeko gaitasuna zein malgutasuna probatu ditu ia eguneroko.


Aurreko puntuan aipatu dugun moduan, kanpo-eragileez gain, kontuan hartu behar dugu azken urteotan enpresa garatzen ari diren **proiektu estrategiko handien** parte izan dela, trakzio-eragile zenbaitetan eta bideratzaile beste batzuetan.

Azpiegitura eta jarduera-ildo berriak, Nafarroari ezagutza-ekosistema berritzailea ekarriko diotenak. Horretarako profil berriak eta **espezializazio handiko** talde egonkor bat osatzea beharrezkoa da. Xedea erronka berriei ekitea da, bai banda zabala hedatzeari dagokionean, bai HPC eta abangoardiazko azpiegitura lehiakor-lehiakorren bidezko sekuentziazio masiboari dagokionean. Horri guztiari esker, erreferentziatzko I+G+b mapetan kokatu behar da Nafarroa.

Antolakuntzari dagokionean, ildo estrategiko berriek barne antolakuntza berri bat ezartzea "ezinbesteko" egin dute, 2020ko irailean zabaldu genuen organigrama eguneratu honetan ikus daitekeena. 4 Zuzendaritza izatetik 5era igaro gara, Medikuntza Pertsonalizatua eta Laborategiak izeneko bat sortuz eta Komunikazioak eta Zerbitzuak Zuzendaritza zena Berrikuntza eta Enpresa-Kultura bihurtu dugu, Nafarroako Gobernuak hala eskatuta abian ditugu proiektu guztien transbertsalitatea dela eta.

Gure erakunde sendoa gotortze aldera, Berrikuntza eta Enpresa-Kulturako Zuzendaritza berria eratu da, eguneroko gaiak kudeatu baino gehiago aldaketa eta eraldaketa finkatzeko asmoz eta PERTSONEK gauzatutako prozesu guztiak sistematizatzen hasteko... NASERTIC **135 profesional baino gehiagoren** batura delako eta helburuak betetzen lagunduko duen kultura sustatzeko betebeharra duelako, baita emaitzak lortu eta ezin hobeto posizionatzeko ere etorkizunerako ditugun planak gauzatzeko.

Gai izan behar dugu (eta argi geratu da pandemiaren kudeaketan gero eta zerbitzu gehiago eskaini ditugunean era arin eta azkar batean, salbuespeneko egoerek behartuta) aurrea hartzeko, aldaketak ulertzeko, haiei aurre egiteko eta behar bezala erantzuteko, eguneroko kudeaketaren erronkari aurre eginez eta, aldi berean, etorkizuna aurreikusiz, **etorkizun integratzaile eta iraunkorra**, non gure gidariak xede hori lortzen lagunduko diguten metodologia arinek eta egungo kudeaketa-sistema osoa EFQM2020 ereduaren esparruan integratzea izango diren.




3- NASERTIC: EKOSISTEMA ETA ABIAPUNTUA






Dagoeneko aipatu dugun moduan, kolaborazioa eta egunean egotea NASERTICen DNAREN parte dira. Entitate instrumental eta enpresa publikoa izateak ekosistemak sortzea laguntzen dute ez baitugu modu isolatuan jarduten erabat globalizatua dagoen mundu batean eta, gainera, edozein egoera dela-eta enpresa pribatuek interesik ez dutenean edo nahi adina errentagarritasunik ez dutenean guk laguntzeko eta jarduteko aukera dugulako. Halaber, beste erakunde batzuekin inplikatzeko eta ikasteak on egiten digu; izan ere, uste osoa dugu gure gaitasunetan eta egunero kontrastatzen ditugu, **etengabeko hobekuntza** jomugan izanik beti.

Lan egiteko modu berriak dira koronabirusaren krisiak eragindako erronka handienetako bat. Izan ere, COVID-19aren etorrerak lan tradizionalaren errutina perspektiban jarri du, telelanaren eta aurrez aurreko lanaren arteko konbinazioa neurri guztietako konpainiek gehien erabiltzen duten formuletakoa bat bihurtzeraino. Horrek, bilakaera disruptiboa izan duten eremu teknologikoen abiadarekin batera, nolabait behartzen gaitu NASERTIC "birpentsatzera" eta gaitasun berriak txertatzera, enpresa osoa hartuko duten **ekosistema kolaboratibo** funtzionalagoak garatzeko.

Jakina, Plan Estrategikoaren oinarriak finkatzeko, gure ekosistemako interes-taldeak identifikatu ditugu, eta lehentasuna eman diegu funtsezkotzat jotzen ditugunei, gure Misioa, Ikuspegia eta Estrategia lortzea ahalbidetuko digutenei, eta, zenbaitetan, lortzea eragotziko digutenei, beti haiekin loturarik ez duten arrazoiengatik.

Horretarako, interes-taldeen ebaluazioa egin dugu, izan dezakegun eraginaren eta horiekiko dugun mendekotasunaren arabera segmentatuz, eta honako matrize hauetan eta IAAM analisirako informazio-sarrera gisa irudikatu dugu. Bezero eta pertsonen pertzepzioaren emaitzak aztertu dira eta emaitzarik adierazgarrienak matrizeetan jaso dira, bai eta PEN ekipoak interesa duten gainerako taldeei buruz egindako balorazioa ere.








Analisis egin eta gero, "izen-abizenak" jarri dizkiegu gure interes-talde garrantzitsuenei.

NASERTICEk bere potentziala ezagutzen du, bere ekosistema eta ondorioak ulertzen ditu, alderdi positiboei zein hobe daitezkeenei dagokienean. Egungo eta etorkizuneko erronka nagusiak egituratu eta garatuko dira, teknologia-egoerei eta digitalizazioaren eta eraldaketa digitalaren bilakaera logikoari buruz egindako analisiari esker. Bestalde, strategiaren lehen mailan **enpresa-kulturaren aldaketa** arina dakar horrek.

Gaur egungo egoera bat dugu abiapuntu, AMIAN zehazten dena eta aldagai estrategiko guztiak kontuan hartzen dituena. (2022. urtean Zuzendaritzak zuzendua).

NASERTIC: EKOSISTEMA ETA ABIAPUNTUA





INDARGUNEAK

- | Talentua erakartzea
- | Abangoardiazko azpiegiturak
- | Talentu espezializatua
- | Iraunkortasun finantzario eta presupuestarioa
- | Energia berdea kontsumitzea
- | Prestakuntza espezializatua jasotzeko aukera
- | Gaitasun teknologikoa
- | Kolaborazio publiko-pribatua
- | Negozioa dibertsifikatzea
- | Datuak biltegitatu eta zaintzea
- | Gardentasuna eta kode etikoa
- | Konprometitutako langileak
- | Nafarroako Gobernuaren entitate instrumentala
- | NEKPren enpresa publikoa

AUKERAK

- | Europar Batasuneko (EB) funtsak
- | Sareak zabaltzea
- | Bezero berriak egitea
- | Zerbitzu berrien eskaera
- | Aldaketa instituzionalak
- | Balio erantsi iraunkorra sortzea
- | I+G+b proiektuak nazionala+nazioartekoa
- | STEM bokazioak sustatzen laguntzea
- | Berrikuntza, automatizazioa eta prozesuak hobetzea
- | Enpresa-kultura eraldatzea
- | Sinergia teknologikoak arloen arteko lankidetzaz bidez
- | Bezeroekin Harremantzeko ereduak hobetzea

AHULGUNEAK

- | Sektore publikoa lan-esparrua aurrekontu-egonkortasunaren legeengatik
- | Arrisku psikosozialak
- | Hornitzaile bakarrak
- | Hondakinak sortzea
- | Genero-arrakala
- | Zerbitzu publikoen irudiak okerrera egitea
- | Zerbitzu berriak sortzeko oztopoak
- | Espazio fisiko mugatua
- | Ikaskuntza-kurba luzea
- | Arintasun-eza muga burokratikoengatik
- | Pizgarrien eta ibilbide profesionalen gabezia sistematikoa

MEHATXUAK

- | Bezeroen konfiantza galtzea
- | Arrisku instituzionalak
- | Aurrekontu-murrizketak
- | Funtsezko bezeroak eta aliantzak galtzea
- | Informazioaren segurtasuna
- | Autokonplazentzia eta arintasuna galtzea
- | Absentismoa
- | Ingurune teknologiko aldakorra
- | Baliabide-horniduraren eta azpiegituren arteko desoreka
- | Esparru arautzailea aldatzea
- | Konpetentzia digitaletan egunean ez egotea
- | Prezioen ezegonkortasuna eta inflazioa
- | Hornikuntza arazoak eta entrega-epeak

4- XEDEAK ETA BALIOAK

Kudeaketa-esparru malgu honetan eta Plan Estrategiko honen bidez, balio iraunkorra sortzeko bidean epe laburrera zein luzera lan egiteko moduak birplanteatzen ari gara, EFQM ereduak adierazten duen bezala.

Aldi berean, bi erronka uztartzen saiatzen gara: eguneroko kudeaketa eta aldaketaren kudeaketa eraginkorra. Lehen esan dugun moduan, NASERTICek Nafarroan urteotan egiten ari diren proiektu estrategiko gehienetan parte hartzen du eta. Hori zor diegu enpresa osatzen dutenei, kudeatzen eta eskuratzen ditugun azpiegituri, adituak garen teknologiarri eta eskaintzen ditugun zerbitzuei... eta, funtsean, badakigulako pertsonen alde eta pertsonentzat lan egiten dugula.


Etengabeko aldaketa-une batean gaude, eta ingurunea, gure bezeroak eta gizartea, oro har, gai gero eta konplexuagoi aurre egiten ari dira. Gure xedeak islatzen du **elkarrekin eta modu berritzailean lan egiteko** konpromiso irmoa dugula, arazoei konponbide berriak bilatzeko talentuarekin, azpiegiturekin, teknologiarekin eta pertsonen alde eta pertsonentzat zerbitzuak eskainiz.

EGITEN DUGUNAZ hausnartu dugu: zerbitzu publikoa ematea informazioaren teknologietan, telekomunikazioetan, medikuntza pertsonalizatuan eta laborategietan eta zerbitzuetan (datuen zientziaren laborategia, turismoaren eraldaketa digitalaren laborategia, komunikazioa eta marketina, herritarren arreta, etab.), gure azpiegiturekin zein Nafarroako Gobernuarekin. Nafarroarentzat estrategikoak diren proiektuetan laguntzaileak eta **agente bideratzaileak** gara eta Nafarroako Gobernuak enkargatzen dizkigunen trakzio-eragile gara.

NORENTZAT LAN EGITEN DUGU eta nori eskaintzen dizkiogun gure zerbitzuak: Nafarroako Gobernua, zerbitzu publikoak, NEKP, teknologia-zentroak eta ikerketa-zentroak, elkarteak/fundazioak/gizarte-entitateak, operadoreak, enpresa pribatuak, I+G+b ikertzaile-elkarteak, herritarrak, HHB-TTB-Nafarroa, Orotan Lagun, etab..

NON / NOREKIN / ZEREKIN: NSERTICen 4 egoitzetan nafarren alde eta nafarrentatik, baita estatu-mailan ere (RES + IMPaCT) 115 profesionalekin, guztiak arlo desberdinetan espezializazio handikoak, baliabide propioekin edo Gobernuarenak kudeatuta eta abangoardiazko azpiegiturekin, ohiko zerbitzuekin batera. Hori guztia Nafarroako Gobernuaren enkarguen bidez edo proiektu estrategikoetan parte hartuz (deialdia Gobernua edo Ministerioa). Eta beti kontratu publikoen legea eta indarrean dagoen legeria errespetatuz.

Talentua, azpiegiturak, teknologiak eta pertsonen aldeko eta pertsonentzako zerbitzuak gara. Gure xedea gure existentziaren arrazoia da. Gure balioek nola jokatzeko dugun zehazten dute.




5 - IKUSPEGIA: ARDATZAK ETA HELBURUAK

Arestian deskribatutako Misoak NASERTICen jarduketa-esparrua definitzen badu, Ikuspegiak hurrengo epe estrategikorako lehentasunezkoak diren **lorpen-asmoak** islatu behar ditu. Gure Ikuspegian, jakina, “norentzat” eta lortu nahi ditugun azken emaitzak barne hartzen ditugu

Misioa eta Ikuspegia argi izanik, hausnarketa estrategikoan aurrera egin genuen eta “Ikuspegiaren Ardatzak” definitzen hasi ginen. Horiek epe estrategikoko **lehentasunak** adierazten dituzte azken helburuei edo helmuga-horizonteei dagokienean.



IKUSPEGIAREN ARDATZAK



NAFARROA GARATZEN LAGUNTZEA

IRAUNKORTASUN FINANTZARIO ETA PRESUPUESTARIOA SENDOTZEA

AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOETAN ERREFERENTE IZATEA

KOLABORAZIO PUBLIKO-PRIBATUKO EKOSISTEMAK SOR DAITEZEN AHALBIDETZEA

Gure jarduna bideratzen dugun arlo edo interes-taldeen arabera (herritarrak, bezeroak/erakundeak, egonkortasuna eta ingurunea) proiektatu ditugu. Hortaz, Ikuspegia osatzen duten funtsezko ideiak **Ikuspegiaren 8 Helburutan** mamitzen dira, eta horien arabera definitzen du NASERTICek 2021-2023 eperako estrategia

Plan Estrategiko honen horizontea marrazteko **Ikuspegiaren Helburuei** dagokienean, honako azken helburuak definitu ditugu, zeinak kuantifikatuta dauden eta plan estrategikoan aurreikusten den arrakasta definitzen duten. NASERTICen Ikuspegia aurreko irudian aurkeztutako Ikuspegiaren 5 Ardatzetatik abiatzen diren Ikuspegiaren 8 Helburu horietan zehazten da.

NASERTICek datozen hiru urteetarako dituen lehentasunak, beraz, zortzi funtsezko emaitza horietan kokatzen dira. Era horretan, Helburu Estrategikoen bidez Ikuspegian idatzitako konpromisoak lortzeko bidean aurrera egitea ahalbidetuko digun ibilbide-orria definitzen lagunduko dute.



IKUSPEGIAREN HELBURUAK



6 - IKUSPEGITIK ESTRATEGIARA


Orain Ikuspegia eta Estrategia lotuko ditugu guztiak kausa-efektu bat izan behar duelako, guztiak lotura izan behar duelako eta guztiak finkatu ditugun **funtsezko emaitzak eta lehentasunak** lortzen lagundu behar digulako.

Aldi berean, helburu estrategikoak abian jartzeko, hainbat jarduketa-arlo hautatu dira (6 guztira), NASERTICek helburu horiek erdiesteko egiten duen apustua mugatu eta zehazten dutenak.

Helburu horiek (Ikuspegikoak zein estrategikoak) aukeratzeko abiapuntua dokumentu honen lehenengo zatian aurkeztutako diagnostikoa izan da (interes-taldeak, matrizeak, IAAM, etab.). NASERTICeko **40 lagunen baino gehiagoren parte-hartze aktiboaren bidez** egin da, parte-hartze prozesu ireki eta boluntario batean

Bi hilabetez baino gehiagoz, enpresako jarduketa-arlo guztietako 4 ekipo operatibok oinarriak finkatu dituzte gure Misioa eta Ikuspegiarentzat lehentasunezko zatitugun 4 zutarrietan. **PERTSONAK, TEKNOLOGIA, PROZESUAK ETA GIHak** dira (Garapen Iraunkorrerako Helburuak), egindako hausnarketa estrategiko ororen atzean dauden arloak eta strategiaren hedapenean modu kontziente eta ukigarrian islatzen direnak.

Gainera, helburu estrategiko bakoitza azken emaitza neurgarri gisa zehaztu da, kasuan kasuko **Adierazleen** bidez; era horretan, haiek kudeatzea eta eguneratzea eta haien jarraipena egitea errazagoa izan dadin. Horrenbestez, erakundearen prozesuetan eta baliabideetan zentratutako helburuak dira. Arlo eta helburu estrategiko horiek definitzea, beraz, funtsezkoa da datozen urteetarako beharrezkoak diren eta hartutako erronkak betetzearen zerbitzura egongo diren ekimenak abian jartzeko




Jarraian aurkezten den Mapa Estrategikoak Ikuspegia eta Estrategia lotzen ditu. Estrategia Helburuetan zehazten da, zeinak, aldi berean, enpresak kudea ditzakeen eta bi fasetan definitzen diren jarduera eta baliabideetan zentratzen diren:

I. Jarduera, prozesuak eta baliabideak: Kasu bakoitzean Ikuspegiaren Helburu bati edo batzuei erantzuteko definitzen dira, kasua-efektu lotura batean. Ikuspegiaren Helburu guztiek helburu horietako bat edo batzuk behar dituzte lortuko direla ziurtatzeko.

II. Pertsonak, Balioak: Aurreko helburu estrategikoak definitu eta gero, arlo honetan enpresaren lehentasunak zeintzuk diren definituko dugu. Horrela aurrekoak landu eta lortu ahal direla ziurtatuko dugu. NASERTICen testuinguru propioan beharrezkoak diren hobekuntzak definitzen dituzte.

7 - MAPA ESTRATEGIKOA



MAPA ESTRATEGIKOA

8 - AGINTE-TAULA

XEDE-HELBURUA	ADIERAZLEA	2020	Oraingo HELBURUA	Oraingo HELBURUA +1	Oraingo HELBURUA +2
NEGOZIO-MERKATU-BEZERO IKUSPUNTUA					
Gizarteak sozialki arduratsua den erakunde gisa har gaitzan lortzea	Gizarte-inkesta		8	8,7	9
	Aldez aurreko autodiagnostikoa		4,28	4,5	4,8
Balio iraunkorra sortuko duten harreman solidoak lortzea	Fakturazioa eta zerbitzuak eskaintzen zaizkien entitate kop. handitzea		0,50	1	1,50
	Fakturazioa handitzen duten bezeroen %-koa (100 x Hazten diren Bezeroak / Bezero Totalak)		0,00	0	0,00
Bezeroen asebetetze-maila hobetzea	Bezeroen % asebetetze orokorra 8 edo gehiago	67	80	87	88
	Erantzunaren kalitatearen balorazioa		8	8,2	8,5
	Epearen balorazioa		8	8,2	8,5
Azpiegituretan egindako inbertsioetan itzulkina eskuratzea	Azpiegitura inbertsioa/Diru-sarrerak % = BEG		0	0	0
Egonkortasun finantzarioa ziurtatzea eta NEKP garatzen laguntzea	Maniobra-funtsa (urtean behingoa)		3.000.000	3.000.000	3.000.000
	Galera eta irabazien kontuaren urteroko emaitza		500.000	500.000	500.000
	Superkonputazio Zentroaren (HPC) erabiltzaile kop.	6	8	10	12
	Konputatutako orduak % - ez RES	18,50%	20,00	33	50,00
Konektibitatea eta Nafarroako azpiegitura teknologikoak sustatzea	NASERTICek eskuragarri jarritako housing DPZko rack aztarna kop	11	14	19	25
	Telekomunikazio Zentroetan azpiegiturak areagotzea		5	9	14
	Sekuentziazio Masiborako Zentraren erabiltzaile kopurua		4	7	10
	Sekuentziazio Masiborako Zentroaren fakturazioa		250.000 €	500.000	1.000.000 €
Nafarroaren iraunkortasunean ekarpen eraginkorrak egitea	Karbono-aztarna murriztea %		5,00	7	10,00
	Zuzeneko onuradunen kop		500	3500	4200
Nafarroa berrikuntzan eta abangoardia teknologikoan erreferente gisa koka dadin laguntzea	Eskualdearen garapenean egindako ekarpenaren barne-ebaluazioa		3	4,7	4,9
BARNE-JARDUERAREN IKUSPUNTUA					
Zerbitzu bakoitzarentzat denborak eta erantzunaren kalitatea	Ez-ados lan kop.	9	20	15	10
	Entrega-eparekin lotutako erreklamazio kop., NASERTICi egotz dakizkiokeenak		10	7	5
	Zerbitzuaren kalitatearekin lotutako erreklamazio kop., NASERTICi egotz dakizkiokeenak		10	7	5
Balioa areagotuko duten zerbitzu berriak ezartzea	Sortutako zerbitzuen kop.	7	8	10	14
	Zerbitzu berrietarako sortutako barne- eta kanpo-pilotuen kop.		2	3	4
	Segurtasun inzidentzia kopurua	NA	0	0	0
	Heldutasun tasa	NA	80	80	85
Proiektu estrategikoetan parte hartzea konektibitatea hobetu eta Nafarroako azpiegiturak modernizatzeko	Konektibitatea hobetu eta azpiegiturak modernizatzeko parte hartuko dugun proiektu kop.		10	15	20
Gure trebakuntza teknologikoan aurrera egitea	Gehitutako teknologien kop.		1	2	3
	Teknologian prestakuntza-ordu kop./guztira		35,00	42,00	50,00
I+G+b proiektu autonomiko, nazional eta europarretan dugun parte-hartzea areagotzea	Proiektu kop.	3	3	8	10
Berrikuntzaren kudeaketa-prozesua indartzea baliozko zerbitzuak emateko	Barne- eta kanpo-berrikuntza sustatzeko jarduketak kop.		10	15	20
Komunikazioa eta marketina hobetzea zerbitzuaren parte gisa eta NASERTIC espezializazio handiko enpresa publiko gisa proiektatuz	Bezeroari egindako jakinarazpen kop.		2	4	6
NASERTIC sozialki arduratsua den enpresa gisa proiektatzea	Ikastetxe, unibertsitate, TZ, GKE, etab.-ekin egindako kolaborazio kop.	7	10	14	18
TZ, enpresa eta ekosistemen (IKT, etab.) trakzio-eragile izatea lankidetzan arituz eta ezagutza partekatuz	Behin eta berriro kolaborazioa eskaintzen zaien entitate kop.		10	15	20
Baliabideak eraginkortasunez erabiltzen direla ziurtatzea	Material suntsikorren erosketak/diru-sarrerak		5,95	5,45	5,25
Baliabideen erabilera arduratsu eta iraunkorrean aurrera egitea	Kontsumoen urteko murrizketa %		2,00	3	4,00
ANTOLAKUNTZA, BALIOAK, KULTURA, PERTSONAK ETA EZAGUTZA IKUSPUNTUA					
EFQM2020 kudeaketa-eredua hedatzea	EFQM autoebaluazio puntuazioa		300	300	500
	Ezarritako hobekuntza-aukeren %		20,00	37	50,00
Etengabeko hobekuntza sustatzea balio iraunkorra sortzeko	Prozesuak hobetzeko ezarritako jarduketak kop.		10	20	30
Gure prozesuen egitura indartzea	Birdiseinatutako prozesuen kop.		10	20	30
NASERTICen talentu espezializatua indartzea	Prestatutako pertsonen %		60,00	70,00	80,00
	8tik gorako ebaluazioa duen prestakuntza %	86,00	75,00	80,00	85,00
Eguneroko gaiei, aldaketei eta erronkei aurre egiteko gai izango diren ekipo arin eta eraginkorrak kontsolidatzea	Lantaldeen kop.		5	10	20
	Asebetetze Konpromezuarekiko Iritziaren Barometroa		0,00	76,00	86,00
Xede pertsonal eta profesionalen arteko konpromiso orekatua bultzatuko duen kultura hedatzea	Lan Giroa 2022		77,00	70,00	80,00
	7tik gorako konpromisoa duten langileen %		50,00	75,00	100,00
Berdintasun eraginkorra, gardentasuna eta etika profesionala sustatuko duten neurriak ezartzea	Berdintasun-planaren betetze % Gardentasuna eta etika kontzientziazio-jarduketak		6	9	12

9 - PROIEKTUAK ETA URTEKO PLAN OPERATIBOAK

PROIEKTUAK ETA URTEKO PLAN OPERATIBOAK



EFMQ2020
Kudeaketa-Sistema



SUPER KONPUTAGAILUA
Zerbitzuen sarbide puntu bakarra



Pertsonen Plana
NEKP NASERTIC







Hondakinak
Kudeatzeko Plana



0365 Teams
Ezartzea



OM Plana +
NASERTICek erantzuten du



10 - NASERTIC GIH-EKIN BAT ETORTZEA

Garapen Iraunkorrerako Helburuak guztiontzako etorkizun jasagarria lortzeko plan maisua dira. Elkarren arteko lotura dute eta egunero aurre egiten diegun erronka globalak jasotzen dituzte, besteak beste, pobrezia, berdintasun-eza, klima, ingurumenaren narriadura, oparotasuna, bakea eta justizia. Inor atzean ez uzteko, garrantzitsua da helburu horietako bakoitza betetzea 2030erako. Lehen hausnarketa batean, **NASERTIC**en izaera Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH) horietako batzuekin **bat dator berez**. Jarraian, guri "eragiten digun" GIH bakoitzari buruzko xehetasunak emango ditugu. Ondoren, orain arte egindakoa garatuko dugu, baita 2030 arte zer egin genezakeen ere. .


8: Hazkunde ekonomiko inklusibo eta iraunkorrak aurrerapena bultzatzen dezake, guztiontzako enplegu duinak sor ditzake eta bizi-estandarrik hobetu ditzake. COVID-19ak milaka milioi bizitza aldatu ditu eta munduko ekonomia arriskuan jarri du. Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) 2009koaren antzeko atzeraldi mundiala edo are okerragoa aurreikusten du. Enpleguaren galera areagotzen den heinean, Lanaren Nazioarteko Erakundeak uste du munduko langile guztien erdiak inguruk bizirauteko bitartekoak galtzeko arriskua dutela.

9: Industrializazio inklusibo eta iraunkorrak, berrikuntza eta azpiegiturarekin batera, enpleguak eta diru-sarrerak sortzen dituzten indar ekonomiko dinamiko eta lehiakorrek aska ditzake. **Teknologia berriak sartzean eta sustatzean**, nazioarteko merkataritza erraztean eta baliabideen erabilera eraginkorra ahalbidetzean funtsezko zeregina betetzen dute. Hala ere, oraindik bide luzea dago egiteko munduak potentzial horri ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko. Bereziki, gutxien garatutako herrialdeek beren manufaktura-sektoreen garapena bizkortu behar dute 2030eko helburua lortu nahi badute eta ikerketa eta berrikuntza zientifikoetan inbertsioa handitu nahi badute. Berrikuntza eta aurrerapen teknologikoa funtsezkoak dira **ekonomia- eta ingurumen-erronketarako** konponbide iraunkorrak aurkitzeko, adibidez, energia-eraginkortasuna zein baliabideak areagotzeko. Komunikazio-azpiegiturari dagokionez, munduko biztanleriaren erdia baino gehiago konektatuta dago orain, eta ia biztanle guztiak sare mugikorreko estaldura duen eremu batean bizi dira. 2019an, biztanleriaren % 96,5ak gutxienez 2G sareko estaldura zuela uste da.

10: COVID-19ak ere arriskuan jartzen ditu azken hamarkadetan **genero-berdintasunaren eta emakumeen eskubideen** arloan lortu diren aurrerapen urriak. Ia esparru guztietan, osasunetik hasi eta ekonomiaraino, segurtasunetik hasi eta babes sozialeraino, COVID-19aren ondorioek emakumeen eta nesken egoera larriagotu dute beren sexuaren ondorioz.

17: GIHak mundu-mailako asoziazio sendoekin eta **lankidetzarekin** bakarrik lor daitezke. Garapen-programak behar bezala bete daitezten, asoziazio inklusiboak ezarri behar dira (mundu-mailan, eskualde-mailan, nazio-mailan eta toki-mailan) printzipio eta balioei buruz, bai eta ikuspegi eta helburu partekatu bati buruz ere, lehenik eta behin pertsonak eta planeta ardatz hartuta.

Arestian aipatu dugun bezala, eta Ikuspegiaren helburuetan nahiz helburu estrategikoetan jasota dagoenez, NASERTICek Nafarroaren garapen estrategikoan lagundu nahi du, eta gizarteak **sozialki arduratsua den erakundetzat** har gaitzala nahi du. Horregatik, enpresako profesionalen talde espezifiko bat eratu zen (10 lagun baino gehiago) GIHetan lan egiteko, gaur egun ekarpena nola egiten dugun eta zer ekintza egin genitzakeen gure enpresak 17 GIH horiek bultzatzeko. Horretarako, Nazio Batuek ezarritakoak aztertzeaz gain, Nafarroako Gobernuak **2030 agendan** ezarri dituen helburuei erreparatu diegu, eta horiekin bat egin dugu gaur Egungo NASERTIC (egindako lana) eta Helburua (hurrengo urteetan egin genezakeena) ataletan. Hauxe da emaitza:





GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



DESKRIPZIO OROKORRA

Pertsonak elikagaiak eskuratu ahal izatea eta gizartean bete-betean parte hartu ahal izatea bermatzea.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Pobrezia murriztea
- » Babes sozialaren estaldura zabalera pertsona pobre eta zaugarrientzat

EGUN - HELBURUA

EGUN » Nafarroa, Orotan Lagun elkarteekin kolaboratzen dugu entitateekin, GKEekin eta boluntarioekin zailtasunak dituzten pertsonen banda zabalerako sarbidea izan dezaten, landa-ingurunean batez ere, eta lurraldearen egituraketan. Enpresaren misioa eta ikuspegia, Elikagaien Bankuarentzat elikagaiak biltzea.

HELBURUA » Pobrezian zentratutako GKE batekin proiektua. Gure inguruko gizarte-erakundeekin harreman estua izatea.



DESKRIPZIO OROKORRA

Elikagaien alferrikako galera eta ingurumenaren narriadura murriztea, eta gosea murrizteko nekazaritza-jardunbide eraginkor eta iraunkorrak sustatzea.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Pertsona guztiek elikadura osasungarria eta nutritiboa izateko aukera
- » Nekazaritza-ekoizpeneko sistemen iraunkortasuna ziurtatzea
- » Hazi, landare eta animalien aniztasun genetikoa mantentzea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Ingurumena ez narriatzen laguntzen dugu, pestizidarik gabeko produktuak direla bermatzen duten JD analisien bidez; arraza autoktonoak ez desagertzen laguntzen dugu, eta arraza garbei balioa ematen diegu. Bertako produktuak sustatzea Herritarrentzako Arretan

HELBURUA » NASERTICen xahutzea geldiarazteko plana; sentso-researen (LORA) hedapena sustatzea, landa-ingurune (nekazaritza eta abeltzaintzakoa) edozein aldagai monitorizatu ahal izateko, besteak beste aplikazio batzuen artean.



DESKRIPZIO OROKORRA

Pertsonen, bezeroen eta langileen ongizatea lortzea, gorputzean, buruan eta ariman. 360°-ko ongizatea lortzeko lanean.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Gaixotasun kutsakor jakin batzuei amaiera ematea
- » Gaixotasun ez-kutsakorren ondoriozko hilkortasun goiztiarra murriztea eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea
- » Adikzioen prebentzioa eta tratamendua indartzea
- » Trafiko-istripuen ondoriozko hilkortasuna eta lesioak murriztea
- » Sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbide unibertsala bermatzea
- » Produktu kimikoek eta kutsadurak eragindako heriotzak eta gaixotasunak murriztea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Gaixotasun arrunten prebentzioko eta jarraipeneko sistema sendoa eta COVID kontingentzia 4 egoitzetan. Ohitura osasungarrien berri ematen dugu. Medikuntza pertsonalizatuko estrategia, Sekuentziario Zentroa, Memoria Historikoa, NASERTIC-PF laborategia. Entzefalopatiak (BSE) eta animaliek dituzten beste gaixotasun batzuk eta hondakin-uretako Covid-a aztertzen ditugu.

HELBURUA » Osasun-ekosistemaren traxzioa sustatzea, pertsonen onurarako, azpiegiturak, teknologia eta osasuna elkartuz. Enpresan produktu kimikoak murrizteko plana. Ohitura osasungarrien plana.



DESKRIPZIO OROKORRA

Pertsonen gaur egungo garaietara egokitutako kalitatezko prestakuntza jaso dezaten sustatzea.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, haur hezkuntza, lanbide-heziketa eta goi-mailako irakaskuntzaren sarbidea eta kalitatea bermatzea
- » Enplegurako prestakuntzaren kalitatea eta eragina handitzea
- » Aukera-berdintasuna bermatzea, bereziki genero-ekitatea, hezkuntzarako sarbidean.
- » Herritartasun globalerako eta garapen iraunkorrerako hezkuntza ziurtatzea.

EGUN - HELBURUA

EGUN » Profesional gazteen prestakuntza sustatzea, ikastetxeekin lankidetzan, honako hauen bidez: NUPen bekak, praktikak LHko zentroekin eta unibertsitateekin. Akordioak unibertsitateekin. Proiektua Sanduzelako ikastolarekin ikastetxe publikoarekin (liburutegia eta musikoterapia). NASERTICeko langileen prestakuntza-plana. Zientziaren Asteetan eta ate irekien jardunaldietan parte hartzea, banda zabala hedatzea. Enpresako prestakuntza sustatzen dugu eta etengabeko prestakuntza era positiboan sustatzen dugu, gizarte-trebetasunak barne. STEMak sustatzea.

HELBURUA » NASERTICen prestakuntzaren kalitatea eta inpaktua handitzea, etengabeko ikaskuntza bermatzeko eta talentu espezializatua eskuratzeko. Profil berrientzako prestakuntza-premia berriak hautematea, teknologiaren bilakaeraren, azpiegituren eta zerbitzuen arabera. GIH eta ohitura iraunkorrei buruzko prestakuntza eta/edo sentsibilizazioa. Egoitza bakoitzean liburutegirako gune bat antolatzea.



DESKRIPZIO OROKORRA

Genero-berdintasuna eta hezkuntzarako, osasun-laguntzarako eta lan duinerako sarbidea sustatzea emakume eta neskenentzat

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Sexuagatiko bereizkeria amaitzea
- » Genero-indarkeria ezabatzea
- » Nahitaezko ezkontzak eta emakumeen mutilazio genitala ezabatzea
- » Erantzunkidetasuna eta kontziliazioa sustatzea
- » Emakumeen aukera-berdintasuna eta parte-hartzea bermatzea
- » Sexu- eta ugalketa-osasuna ziurtatzea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Berdintasun Plana 2017tik, lana eta familia bateragarri egitea sustatzen dugu, ordutegi malgua, emakumeen kontratazioa bultzatzen dugu STEMetan, hizkuntza eta komunikazio inklusiboak, # 8M eta # 25N kanpainekin bat egitea. Generoagatiko jazarpenaren protokoloa.

HELBURUA » Familia-kontziliazioa sustatzeko telelana egitea aztertzea; langile guztiak genero-berdintasunaren arloan prestatzea, eta komunikabideetan zein ikastetxeetan presentzia handitzea arlo horietan. Familietan erantzunkidetasuna sustatzea (etxeko lanen banaketa).



DESKRIPZIO OROKORRA

Saneamendu eraginkorra eta kalitatezko edateko uraren eskuragarritasuna bermatzea, baita hondakin-uren arazketa ere, eta baliabideen gehiegizko ustiapena murriztea.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Edateko uraren eskuragarritasun unibertsala lortzea
- » Saneamendu-zerbitzuetarako sarbide unibertsala lortzea
- » Uraren kalitatea hobetzea
- » Ur-baliabideen erabilera eraginkorra handitzea eta ur gezaren erauzketaren eta horniduraren iraunkortasuna bermatzea
- » Urarekin lotutako ekosistemak babestea eta berrezartzea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Egoitzen bateko kanalizazioak berrikustea, kontzientziazio-kartelak, COVID hondakin-uren analisia, arro hidrikoaren jarraipena ur-ezaugarrientzat. Enpresan iturriak instalatzea plastikorik ez erabiltzeko.

HELBURUA » Kontsumo eraginkor eta iraunkorra murrizteko plana. Sentsorika eta, oro har, teknologia sustatzea, nekazaritzan eta abeltzaintzan zentzuz kontsumitzeko. Araztegietan datuak biltzeko eta aztertzeko teknologiaren garapena sustatzea.



DESKRIPZIO OROKORRA

Larrialdi klimatikoari aurre egiteko energia garbia eta berriztagarria sustatzea eta edukitzea.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Zerbitzu energetikoetarako sarbide unibertsala bermatzea
- » Energia berriztagarriak handitzea
- » Energia-eraginkortasuna hobetzea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Kontsumo elektrikoa optimizatzea, bai DPZn, bai luminariak dituzten beste egoitza batzuetan. Eguzki-plakak instalatzea Telekomunikazio-Zentroetan. Bizikletentzako aparkalekua egoitzen barruan. Lizitazioetan eta kontratuetan irizpide iraunkorrak txertatzea.

HELBURUA » Elektrizitaterako energia berdea kontratatu dadin bultzatzea. Ekipamendua erosterakoan, kontsumo txikikoaren alde egitea (AAA hirukoitza). NASERTICen barne-mugikortasun iraunkorreko plana. Iraunkortasuna bultzatzeko Gobernuaren laguntzen jarraipen-plana. Kontsumoak monitorizatzeko plan bat sustatzea (barnean zein kanpoan, hainbat kokalekutarako).



DESKRIPZIO OROKORRA

Ordainsari duina duten enpleguak sortzea, lan duina eta guztiontzako aukera-berdintasuna sustatzea.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Produktibitate ekonomikoa handitzea lortzea
- » Ekintzaitza sustatzea
- » Ekoizpen eta kontsumo arduratsua hobetzea
- » Enplegu osoa lortzea gazteen
- » Langabezia murriztea
- » Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua sustatzea
- » Turismo arduratsua sustatzea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Kontratuetan eta lizitazioetan, Gizarte Segurantzari eta finantza-iraunkortasunean egunean egotea egiaztatzen da. Praktikaldiko kontratuak. Tokiko merkataritzari eta artisautzari babes aktiboa ematea eta tokiko ekonomia sustatzea. Talentua atxikitzea (barne-hautaketako prozesuak NEKP enpresentzat). Praktikaldiko kontratuen % 100 ordaintzea.

HELBURUA » Berrikuntza eta sormena sustatzea enpresa-kulturan. Desgaitasunari buruzko legea betetzea. Karrera profesionala garatzeko plana.



DESKRIPZIO OROKORRA

Guztiontzako aukerak eskaintzen dituzten eta, aldi berean, ingurumena babesten duten industriak sustatzea eta berrikuntzak sustatzea hazkundearen oinarri gisa.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Azpiegitura fidagarri, iraunkor, erresiliente eta kalitate onekoak garatzea
- » Industrializazio inklusiboa sustatzea
- » Berrikuntza bultzatzea

EGUN - HELBURUA

EGUN » CSM + PDBA + HPC, I+G+b proiektuetan parte hartzea maila autonomiko zein nazionalean, Datuen Zientziaren Laborategia eta Laborategia, enpresa turistikoaren ED, IRISen parte hartzea, HPC enpresa pribatu eta ikerketa-taldeei.

HELBURUA » Europako proiektu berrietan parte hartzea, zaintza eta prospekzio teknologikoa sistematizatzea (barne-behatokia), enpresan maila guztietan berrikuntza sustatzeko berariazko plana, teknologia eta azpiegitura berri iraunkorrak hedatzea, CSM landare eta animalientzat.



DESKRIPZIO OROKORRA

Desberdintasun sozialak murriztea, pertsona guztiak bizitzea duina eta pertsona gisa hazteko aukera izan dezaten.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Pertsona pobreenen diru-sarrerak handitzea
- » Gizarteratzea eta gizarte-kohesioa sustatzea
- » Aukera-berdintasuna sustatzea
- » Gizarte-babesa handitzea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Gaur egungo Desgaitasunaren Legea betetzea ADECCO Fundazioarekin egindako akordioari esker, Tuterako Udalarekin (TTB) gazteen enplegurako programa, Gureak Navarra Agraria aldizkaria banatzeko, Amimet bulegoko materialerako. Desgaitasun-zentroen bisitaldiak.

HELBURUA » Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea, tokiko gizarte-erakundeekin lan egitea, erosketetan eta kanpo-kontratazioetan eragitea (enplegu-zentro berezietara mugatzea). Soldata-arrakalari buruzko hausnarketa.



DESKRIPZIO OROKORRA

Hiri eta herri garbi eta seguruak bultzatzea, kutsadurari aurre egiten diotenak, etxebizitza eskuragarria eta oinarriko zerbitzuak dituztenak, hala nola ura eta elektrizitatea, garraio garbia eta guztiak gozatu ahal izango dituzten berdeguneak.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Etxebizitza eta bizigarritasuneko oinarriko zerbitzu egokietarako sarbidea ziurtatzea
- » Garraio publikorako sarbidea ematea
- » Urbanizazio inklusiboa eta iraunkorra handitzea
- » Kultura- eta natura-ondarea babestea
- » Hirietako ingurumen-inpaktua murriztea
- » Espazio publiko seguru eta inklusiboetarako sarbide unibertsala ematea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Bizikleta elektrikoak. Enpresan hondakinen kudeaketaren azterketa. Dieselak ez diren ibilgailu erosiak. Garraio publikoko txartelak eskuragarri.

HELBURUA » Hondakinak kudeatzeko plana (NIK) eta aplikazioa enpresa osoan. Ibilgailuen flota hibrido/elektrikoetara migratzea. Garraio iraunkorraren inguruko kontzientziazioa sustatzea. Irtenbide irudimentsu/iraunkorrekin aparkatzeko espazio gehiago prestatzea.



DESKRIPZIO OROKORRA

Birziklatzea eta ekoizpen iraunkorra sustatzea

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Kontsumo- eta Ekoizpen-Modalitate Iraunkorrei buruzko Programen Hamar Urterako Esparrua aplikatzea
- » Baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra eta eraginkorra lortzea
- » Birziklatuz eta berrerabiliz hondakinak murriztea
- » Gizarte-erantzukizun korporatiboaren jarduketak bultzatzea
- » Erosketa publiko arduratsuak sustatzea
- » Iraunkortasunaren kultura sustatzea, gizartea sentsibilizatzeko ekintzen bidez

EGUN - HELBURUA

EGUN » Hondakinak bereiztea egoitza batzuetan, papera eta kartoia biltzeko/birziklatzeko paperontziak egoitza guztietan, garbiketa-enpresekin harremanetan jartzea azken zaborra bereizteko. Tokiko ekoizpena eta tokiko kontsumoa sustatzea TIBen.

HELBURUA » Hondakinak bereiztea egoitza guztietan eta elementu guztietan. Kantitate-murrizketa eta kontsumo arduratsua aztertzea, eta "lorpenak" ikusaraztea.



DESKRIPZIO OROKORRA

Larrialdi klimatikoaren ondorio negatiboak minimizatzen dituzten energia berriztagarriak eta teknologia garbiak bultzatzea.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Erresilientzia eta arrisku klimatikoetara egokitzeko gaitasuna indartzea
- » Klima-aldaketari buruzko neurriak sartzeta
- » Klima-aldaketaren aurrean ingurumen-hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa hobetzea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Eguzki-plakak instalatzea Tuterako eta Peraltako TZetan. Orkoiengo egoitzako karbono-aztarnaren neurria.

HELBURUA » Energia berdearen kontratazioa bultzatzea, NASERTICek (NEKP) ahal duen neurrian. Karbono-aztarnak aztertzea enpresaren egoitza guztietan, kontsumoa murrizteko (pertsianak, leihoak, hotza/beroa, piztutako ordenagailuak). Kontsumoaz sentsibilizatzeko kanpaina. Egoitza guztietan argiztapena automatizatzea.



DESKRIPZIO OROKORRA

Ozeanoen, itsaso eta ibaien eta bertan bizi diren espezie guztien babesaz jabetzea.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Ez dio Nafarroari eragiten, itsaso eta ozeanoak zaintzea baitu ardatz.

EGUN - HELBURUA

EGUN » Plastikozko ur-botilen ordez pitxerrak eta edalontziak erabiltzea. Kafe-makinak kartoizko edalontziak izatea. Iturriak instalatzea egoitza guztietan.

HELBURUA » Kontsumoen sentsibilizazio-kanpainen ekarpenak egitea (materialean zentratzea, plastikoaren ordez kartoia/material birziklagarria erabiltzea).



DESKRIPZIO OROKORRA

Gure ekosistemak babestea, baso-soiltzea, ekosistemen narriadura eta animalia- eta landare-espezieen galera eragotzen duen eta gizakia ekosistema horietatik kanporatzen duen kudeaketa eraginkorraren bidez.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Ur gezetako lehorreko eta barruko ekosistemen kontserbazioa ziurtatzea
- » Basoen kudeaketa iraunkorra sustatzea
- » Ekosistema menditsuen kontserbazioa ziurtatzea
- » Habitat naturalen narriadura eta bioaniztasunaren galera murriztea
- » Baliabide genetikoaren bidezko sarbidea sustatzea
- » Espezie inbaditzaileen aurkako neurriak hartzea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Navarra Agraria aldizkaria, "Modu iraunkorren kudeatutako basoen papera duena, iturri kontrolatuetatik datorrena". Arraza garbien liburu genealogikoa. Ekosistemen TIBren informazioa. Turismo iraunkorra. Behi- (ASPINA-CONASPI) eta ardi-arraza autoktonoen (ASLANA) abere-hazleen elkarrekin lankidetzan aritzea, arraza horien katalogoak eta informazio-/sustapen-aldizkariak egiteko.

HELBURUA » Desagertzearen dauden espezieak sekuentziatzea, ekosistemak zaintzen dituzten proiektuetan laguntzea (Bardea), altzari "iraunkorrak" erosteko analisia, paper-kontsumoen sentsibilizazio-kanpainan ekarpenak egitea, eta esku-lehorgailuak instalatzea. Egoitza guztietan paper birziklatua erostea aztertzea. Egoitza guztietan "oxigenizazioa" lagunduko duten landareak dituzten "lorategi" zintzilariak egiteko aukera aztertzea.



DESKRIPZIO OROKORRA

Gizarte baketsua ziurtatzea, non pertsonak justiziarako eta administrazio garden eta eraginkor baterako sarbidea izango duten

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK

- » Indarkeria-mota guztiak murriztea
- » Gizakien salerosketa amaitzea
- » Zuzenbide-estatua eta justiziarako sarbidea sustatzea
- » Ustelkeria murriztea
- » Erakundeetan gardentasuna sustatzea
- » Herritarren parte-hartzea bermatzea
- » Informaziorako sarbidea bermatzea eta oinarritzko askatasunak babestea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Gardentasunaren Legea, NEKP Kode Etikoa, Memoria Historikoa eta PF betetzea, Jazarpen Protokoloa, Nasertic Summit.

HELBURUA » Langile bakoitzaren "nik honako konpromisoak hartzen ditut" dekalogoak NASERTIC aplikazioan. Barne-funtzionamendurako gida berrikustea, erraz asimilatze modukoa izan dadin, jazarpen "generikoaren" protokoloa zabaltzea eta ad hoc prestakuntza.



DESKRIPZIO OROKORRA

Garapen Iraunkorrerako Helburuak modu bateratuan lortzeko tokiko aliantzak ezartzea, lurraldean dauden eragile guztien parte-hartzea sustatuz: Administrazioak eta gobernuak, sektore pribatua eta gizarte zibileko erakundeak.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GIH HELBURUAK


- » Garapenerako Laguntza Ofiziala
- » Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloetan eskualdeko eta nazioarteko lankidetzak hobetzea, bai eta horietarako sarbidea ere
- » Garapen bidean dauden herrialdeetan gaitasuna sortzeko jarduerak egiteko nazioarteko laguntza areagotzea
- » Munduan egonkortasun makroekonomikoa areagotzea, are politiken koordinazioaren eta koherentziaren bidez ere
- » Garapen iraunkorrerako politiken koherentzia hobetzea

EGUN - HELBURUA

EGUN » Aliantzak Gobernuarekin, udalekin, erakunde publiko eta pribatuekin, lehen aipatutako proiektuak egiteko, auzoka entitateen mapaketa egiteko (Nafarroa, Orotan Lagun).

HELBURUA » Gure ingurunea eta interes-taldeak inplikatzeko. GIHak langileen artean jakitera ematea (hilero buletinean, etab.), GIHetan parte-hartze aktiboa izan nahi duten pertsonak detektatzea eta eskaintza eta eskaria erakundeekin "uztartzeko".

11- NIK HONAKO KONPROMISOAK HARTZEN DITUT:



Hausnarketa estrategikoaren prozesu horretan guztian, eta hasieratik, beharrezkotzat jo genuen ikuspegiari etikaren eta duintasunaren balioa gehitzea, hau da, NASERTIC osatzen duen **persona orok** enpresaren misioa, ikuspegia, helburu estrategikoak eta abar lortzeko duen **konpromiso** indibiduala.

Guztien batura gara, eta konpromiso horretatik soilik, **Pertsonetan, Gihetan, Teknologian eta Prozesuetan** ardaztutako 4 ekipoek (43 lagun guztira) honako konpromiso hauek proposatu dizkiete langile guztiei, hiru urterako Plan Estrategiko hau lortuko dela ziurtatzeko:


NIK HONAKO KONPROMISOAK HARTZEN DITUT





NASERTICeko langileak PENaren lan-saioetan.

12 - HORRELA EGIN DUGU



HORRELA EGIN DUGU



Plan Estrategikoa egiteko ahalegin handia egin behar izan da NASERTICi buruz aztertzeke eta hausnartzeko. Jarraian deskribatzen diren faseetan egituratu da:

1. PEN EKIPOA SORTZEA


Irailean ekin genion aurreko PENaren PEN (2017-2020) ebaluazioari. Maitena Gallastegik, Mikel Nayak eta Toya Bernadek osatutako taldea arduratu zen, Lino Vazquez erretiratuta baitzegoen jada. Plan Estrategiko berria prestatzeko, lantaldea ireki eta Zuzendaritza guztietako kideak sartu behar zirela uste genuen guztiok. Beraz, proiektu hau gidatu duen taldea honako hauek osatu dute:

- Oskia Larrea (Finantzak eta Zerbitzu Orokorra Zuzendaritza).
- Maitena Gallastegi (Mainframe arloa, IT Zuzendaritza).
- Iñigo Ariz (sareko ingeniari arloa, Telekomunikazioak Zuzendaritza).
- Manuel Miguelez (laborategia arloa, MEDPER eta Laborategiak Zuzendaritza).
- Mikel Naya (Berrikuntza eta Enpresa-Kultura Zuzendaritza).
- Toya Bernad (Berrikuntza eta Enpresa-Kultura Zuzendaritza).

2. AURREKO PLAN ESTRATEGIKOA BERRIKUSTEA

Aurreko Plan Estrategikoa berrikusteko, PEN taldeko kide eta zuzendaritza guztiek lagundu dute adierazleak aurkezterakoan. Gainera, barne-inkesta baten bidez, 2017-2020 epealdia **ebalatu** zuten langile guztiek. PEN itxiera txostena egin eta autokritika egin genuen. Era berean, % 50etik beherako portzentajea islatzen zuten ekintza-ildo eta adierazle guztiak berrikusi ziren, eta mapa estrategiko berriarekin alderatu ziren, prozesu honetan dena barne zegoela egiaztatzeko.





3. INTERES-TALDEAK - INGURUNEA

EFQM2020 eredia oinarri hartuta, PEN taldea gure ingurunekeo interes-taldeak **definitzen eta zehazten** hasi da. Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoa izanik, NEKPkoa, ingurunea berezia da, eta aukera asko ditu, baina, aldi berean, muga ugari ere bai. Interes-talde horiek gure egungo NASERTIC ekosisteman integratu ditugu, baita etorkizun hurbilean pentsatuta ere.

4. IAAM ANALISIA

Ondoren, **barne- eta kanpo-analisi** bat egin da, NASERTICen barne- eta ingurune-egoera hobekien islatzen duten ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak (IAAM) identifikatu aurreko fase gisa, Plan Estrategikoaren prestalanetarako duten erabilgarritasuna kontuan hartuta. AMIA analisiak funtsezko bi bloke ditu: kanpo-analisisa eta barne-analisisa.

Kanpo-analisisa: planak barne hartzen dituen urteetan eragina izan dezaketen **Mehatxuak eta Aukerak** identifikatzean datza. Bi faktore horiek helburuak betetzea baldintza dezakete, alde zein kontra

Barne Analisisa: NASERTICen **Indarguneak eta Ahuleziak** identifikatzean datza. Aldeko zein kontrako faktoreak dira horiek, enpresaren errealitatea deskribatzen dute eta ikuspegi estrategikotik aintzat hartu behar dira.

Analisi honek plangintza estrategikoa egiterakoan kontuan hartu behar diren alderdiei buruz hausnartzeko aukera eman du, mehatxuak murrizteko eta horiei aurre egiteko, eta kanpo- eta barne-inguruneak enpresari ematen dizkieten aukerak baliatzeko.

5. MISIOA ETA IKUSPEGIA BERRIKUSTEA

Arestian deskribatutako informazio guztiarekin, NASERTICen Koordinazio Batzordeak (Zuzendaritza Nagusia, Zuzendaritza, Arloko Arduradunak eta Koordinatzaileak) **hausnarketa estrategikoaren** lehen etapa egin dugu, eta NASERTICen Misioa berrikusi dugu. Horretarako, indarrean dagoen Misioa abiapuntu hartuta, honako puntuok aztertu dira:

- Erakundearen izateko arrazoia.
- Emandako zerbitzuak.
- Ingurunea, interes-taldeak eta IAAM.

Lantaldeak gai horiek aztertu ditu, eta ondorioetan funtsezko nortasun-ezaugarriak eta -bereizgarriak txertatu ditu. Misioa are gehiago zehazteko, hausnartu da zer egiten dugun eta zer ez, norentzat bai eta norentzat ez eta non/nola/noiz bai eta ez.

6. IKUSPEGIA, ARDATZAK ETA IKUSPEGI-XEDEAK

Ikuspegiak, Ardatz eta Helburu estrategikoetan egituratuta, plan honek hartzen duen aldia amaitutakoan lortu nahi den helmuga-posizioa definitzen du. NASERTICek erdietsi nahi dituen emaitzei erantzuten die, baita herritarren, bezeroen/erakundeen, egonkortasunaren eta ingurunearen xede-pertzepzioari ere. Ikuspegia, "norentzat" eta emaitzak barne hartzen dituena, **asmo handikoa eta erronkaria** da, baina, aldi berean, neurgarria, lorgarria eta amaieran inpaktua duena.



7. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Ardatz estrategikoak Helburu Estrategikoetan zehaztu dira, NASERTICEk hautatutako **jarduketa-eremu transbertsaletan** taldekatuta. Helburu estrategikoak datozen urteetarako lehenetasunak zehazten dituzte. Horrela, ibilbide-orria definitzen laguntzen dute, Ikuspegian jasotako konpromisoak betetzeko bideari irimotasunez ekin ahal izateko, Ardatz Estrategikoen bidez. Bestalde, helburu horietako bakoitza amaierako emaitza gisa zehazten da, bakoitzari dagozkion adierazleen bidez neur daitezkeenak, haiek **kudeaketa, eguneraketa eta jarraipena** egitea errazagoa izan dadin.

7. puntu hau **NASERTICEko 40 profesional baino gehiagoren parte-hartzeari esker posible izan da. Hainbat saiotan eta dinamika desberdinak erabilia, ia hiru hilabeteko hausnarketa egin dute helburuek eta jarduketa-ildoetako prozesuek barne hartzen dituzten PERTSONA, GIH, TEKNOLOGIA ETA PROZESUEI buruz.** PEN taldeak hausnarketa hori egin ahal izateko "osagai" guztiak genituen. Horrez gain, 4 talde operatibo horiek NASERTICEko kide bakoitzak bere gain har ditzakeen 40 konpromisoak proposatu dizkiete langileei, Ikuspegiko helburuak/helburu operatiboak eta ildo estrategikoak bete daitezzen. Estrategia-sorta hori NASERTICEk helburuak lortzeko abian jartzea erabaki duen neurrien multzoa da. NASERTICEko baliabideak, prozesuak eta pertsonak nola mugiarazi definitu behar da, Ikuspegiaren bidez adierazitako jomugak errealitate bihurtzeko.

8. MAPA ESTRATEGIKOA

Mapa Estrategikoak, hitz batean, Ikuspegiaren eta Estrategiaren arteko lotura adierazten du; ikuspegiaren helburuak lortzeko behar diren bultzatzaile estrategikoak zeintzuk diren laburbiltzeko balio du. Mapa Estrategikoaren logika, gauzatzea eta hedapena kausa-efektu erlazioak "goitik beherantz" eraikitzean oinarritzen dira. Hau da, Ikuspegian zehaztutako ardatz eta helburuetatik abiatuta, Arlo Transbertsalak eta Helburu Estrategikoak planteatu dira.

Lehen maila horrek bigarren hedapen-maila edo -arlea baldintzatzen du. Hots, hautatutako Arlo Transbertsalak eta helburu estrategikoak Ikuspegia oinarri hartuta definitzen dira (eta ez alderantziz), halako moduz non ziurtatzen den **lehenetasunak** ezin hobeto **bat datozela** Ikuspegiaren helburuak lortzera bideratzearekin. Horrela, aldi estrategiko honetan garatu beharreko ekintza eta proiektu guztiek erreferente argia dute, haien egokitasuna eta azken helburuetan duten eragina aztertu ahal izateko.

Mapa estrategikoa definitu eta gero, gure inguruko 20 pertsona esanguratsu baino gehiagorekin **kontrastatu** da, eta mapan jasotako informazioa zehaztu, hobetu eta zabaldu dute.



9. AGINTE-TAULA

Egindako aginte-taula integrala enpresa-kudeaketarako tresna bat da, NASERTICen egoera eta bilakaera ikuspegi orokor batetik neurtzeko erabiliko duguna. Aginte-taulak hainbat **zenbakizko adierazle eta adierazle grafiko** finkatzen ditu (kontrolekoak, finantzarioak, jarduerakoak eta enpresako gainerako arloetakoak), ikuspegi orokorra, objektiboa eta denbora errealekoa eskaintzen dutenak, Zuzendaritzari lagungarri izango zaizkionak erabakiak hartzerakoan. Helburu guztiekin (Ikuspegiarenak zein estrategikoak) eta modu logikoan lerrokatuta daude.

10. PROIEKTUAK ETA URTEKO PLAN OPERATIBOAK

Aginte-taularekin batera, helburu bat edo batzuk lortzeko gauzatu beharreko ekintza-sorta edo -sekuentzia gisa definitzen ditugu **Proiektuak**, denbora-muga batekin eta zerbait ohiko zereginetatik haratago doanean martxan jartzen direnak. Plan estrategikoaren esparruan erabakita daude eta ahalegin gehigarria, hainbat arloren inplikazioa, berriazko aurrekontua eta zuzendaritza-batzordearen lidergoa eskatzen dute.

Urteko plan operatiboei dagokienez, arlo bakoitzaren erantzukizun-eremuan erabakitzen dira, aurrekontu eta baliabide propioekin.

11. NASERTIC-EN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK ONARTZEA

NASERTICeko Administrazio-Kontseiluak, berrikusi eta aztertu ondoren, 2021eko ekainean Plan Estrategiko hau onartu zuen, 2023ko abendura arte indarrean egongo dena.



13 - ESKERRIK ASKO HAUEI GUZTIEI...

NASERTIC ekipoa (44 lagun)

Miguel	Aldaya	Gorka	Lasheras
Javier	Amezaga	David	Latorre
Enrique	Aramendía	Carlos	López
Carmen	Ardoiz	Lola	López
Iñigo	Ariz	Andoni	Majo
Nerea	Azpilicueta	Manolo	Migueluz
Toya	Bernad	Ruben	Monedero
Jokin	Burguete	Mikel	Naya
Mabel	Echeverría	Asier	Otxoa
Mariola	Elía	Laura	Oyarzun
Iosu	Errea	Iñaki	Pinillos
Gonzalo	Etayo	Ainhoa	Remirez
Beatriz	Ezquieta	Gonzalo	Rodríguez
Maitena	Gallastegi	Ernesto	Ruiz de Galarreta
José	García	Paula	Sanchez
Leticia	Gurpegui	Kattalin	Setoain
Fran	Hidalgo	María	Sola
Jesús	Izal	Mikel	Tauste
Alberto	Labrador	Puy	Trigueros
Jesús	Lacalle	Javier	Velez
Iranzu	Lamberto	Iker	Zazpe
Oskia	Larrea	Jon	Echavarri

PEN gure-interes taldeko 21 lagunekin kontrastatu da

Juan Ramón	De la Torre	ADITECH zuzendaria
Agurtzane	Martínez	Berrikuntzako ZN
Iñigo	Lasa	Nbiomed zuzendaria
Fran	Fernández	Zuzendari-kudeatzailea
Mar	González	Tracasa zuzendaria
Ana	Burusco	Unibertsitateetako ZN
Joseba	Asiain	Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko ZN
Ana	De la Cruz	Illumina seniorra
Juan	Barberán	NEKP
Cesar	Esparza	NEKP
Teresa	Minondo	NEKP
Jesús	Jiménez	Navarra Capital zuzendaria
Roberto	Cámara	Navarra Televisión zuzendaria
Roberto	Rey	Business Development TIC-ATANA
Sergi	Girona	RES
Esteban	Morrás	Das Nano lehendakaria
Angel	Alonso	MEDPER Estrategia Batzorde Teknikoa zuzendaria
Maitena	Ezkutari	Turismoko ZN
Izaskun	Goñi	Nazioarteko Proiektzioko eta Laneko ZN
Idoia	Gaminde	Osasuneko ZN
Juan	Jaurrieta	UBEDZN Idazkaritza Teknikoa

Administrazio-Kontseilua:

- Juan Cruz Cigudosa.** Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria.
- Guzmán Garmendia.** Eraldaketa Digitaleko ZN.
- Uxue Itoiz.** Industria, Energia eta Berrikuntzako ZN.
- Iñaki Ilundain.** Eraldaketa Digitaleko ZNren Araubide Juridikoaren atalburua.
- Patxi Echarte.** Azpiegitura Teknologikoen Zerbitzuko eta Euskarri-Zentroko zuzendaria.
- Jesús María Rodríguez.** Tokiko Administrazioaren eta Lurralde-Kohesioaren Departamentuko Despopulazioaren ZN.
- Francisco Javier Turumbay.** Osasun Departamentuko Osasun-Sistemen eta Informazioaren Zerbitzuko zuzendaria.
- Ainhoa Remirez.** NASERTICEko Telekomunikazio Zerbitzuen Arduraduna.

Plan Estrategikoa
2021 → **2023**

